


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2019/07/03) Hurrengo saioa: 2019/07/16	Itsaso 2030	<p>ITSASO 2030 hausnarketa prozesua nola izango den aurkeztu digute Juanjo Allur eta Itsaso Osak. Horretarako, herritarren lehen tasun, iritzi eta proposamenak jasotzeko galdetegia ezagutu dugu eta osaketa lana egin dugu guztion artean. Galdetegia 16 urtetik gora dituzten herritar guztientzat da eta herritar bakoitzak bere inkesta erantzun beharko du (inkesta betetzeko zailtasunak dituztenei laguntza eskainiko zaie).</p> <p>10-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendutako saioak ere antolatuko dituzte (talde edo jolas dinamikak) herriaz duten ikuspegia eta iritzia jasotzeko.</p> <p>Galdetegian agertzen diren gai nagusiak lantalde desberdinetan jorratuko dira eta lantalde batean edo gehiagotan parte hartzeko aukera ere ematen da (abendura bitartean, guztira bizpahiru saio).</p> <p>Aspektu hauek gogoan izatearen garrantzia azpimarratu digute:</p> <ul style="list-style-type: none">- Inkesta betetzeko konpromisoa 16 urtetik gorako herritar guztiena izatea nahi da- Inkesta bakoitzak kode jakin bat izango du, biztanleriaren parte-hartzearen kontrola eramateko.- Inkestetako informazioa modu anonimoan eta konfidentzian tratatuko da- Inkestak etxetara eramango dira eta, bete ondoren, sobre itxietan jarri eta Siadeco lkerketa Elkartera bidaltzeko jasoko dira.- Inkestak entregatzeko epea: uztaileak 19- Siadeco datuak interpretatzen hasi: uztailearen 4. astea- Lantaldeak osatu eta lehen bilera uztailean burutzeko asmoa dago.	<p>Siadecok bidalitako inkestak:</p> <ul style="list-style-type: none">- kodetu- etxe guztietara eraman- eskatzen bada, betetzen lagundu- sobreak jaso edo Udaletxean norberak utzi- Udaletxetik Siadecora bidali
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2019/07/09)	Itsaso 2030	<p>Siadecok bidalitako inkestak sobreetan sartu eta banaketa egiteko prozedura finkatu da: etxetara pertsonalki eraman, inkesta betetzearen garrantzia azpimarratu, laguntza eskaini (behar den kasuetan) eta markatutako epearen barruan Udaletxean entregatu edota bila doanari eman.</p>	



Hurrengo saioa: (2019/07/23)	Diru-laguntzak	<p>- <u>Herriko produktuak</u>: 'Osasuna sustatzeko bertako produktuak ekoiztu eta kontsumitu' izenburuarekin osatzen hasitako proiektua partekatu da (jarduerak, baliabideak, denboralizazioa eta aurrekontua) eta, aldi berean, uztailearen 6ean Ozaetara eginiko bisitan jasotako esperientzia kontatu da. Hango errealitatek gurera ekar daitezkeen hainbat aspekturen inguruko hausnarketa ere egin dugu. Uztailearen 26rako aurkeztu behar da.</p>	Proiektua osatzen jarraitu eta epe barruan aurkeztu
		<p>- <u>Ondare naturala</u>: Ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia jasotzen duen programa honen aukerak aztertzen hasi gara: natura ondarea eta ekosistema kontserbazioa, lur-zoru kutsatuak, klima aldaketa eta mugikortasun jasangarria, ekonomia zirkularra, Irailerako aurkeztu behar denez, proiektua definitzen jarraituko dugu.</p>	

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2019/07/10) Hurrengo saioa: 2019/07/24)	Udaletxeko obra	<p>Miriam Otamendi arkitektoak ganbara eta teilatua erabat berritzeak (Egoin enpresak) edo daukan egitura mantentzeak dauzkan aurrekontuak eta abantailak eta desabantailak azaldu ditu. Guztiontzat oraingo egitura zaharberritzea egokiago iruditu da eta aurrekontua merkeago.</p> <p>Hurrengo pausoa proiektu definitiboa erredaktatzea da baina Teknaliak erabateko azterketa egin aurretik posible ote den orain arteko datuekin justifikatuta da zalantza. Posible balitz, abuztuaren lehen asteetan udal plenoak lizitzatzeko prozedura indarrean jarriko luke eta era horretara udazkenean lan guztiek segida izango lukete.</p>	Arkitektoen Kolegioak eta Miriam arkitektoak proiektua aurre-justifikazioarekin abuzturako egitea posible litzatekeen jakin.
	Ostatuko argiteria eta beste batzuk	<p>Ostatuko sarreran eta tabernan lanpara berriak kokatu dira, izan ere, argi gehiago, jasangarriago eta merkeagoa izatea zen helburua.</p> <p>Arotzari jada eskatu zaio komunean eta etxebizitzan behar diren leiho berrien aurrekontua</p>	Aurrekontuak baloratu
	Alegiako autobus geltokia	<p>Alegiatik Ormaiztegi aldera joateko eta autobusa hartzeko, oinezkoen segurtasunerako espaloiak eta errepedea gurutzatzeko obrak eginak baziren ere, autobus geltokia lekuz aldatu eta markesina baten beharra ikusi zen.</p> <p>Gabiriako Udalarekin egindako hitzarmenari esker Aroztegi parean kokatu da.</p>	